

Deba
ETORKIZUNA ORAIN



2022ko URRIA 20. zbk.

DEBARROK ERE HITZEZ EKITEKO PREST





Debaberri 20
2022ko urria

AURKIBIDEA

- 2Udaletxetik
- 3Udaren balorazioa
- 4-5San Roke jaien balorazioa
- 6Ikasturterako erronkak
- 7Ur (h)ondoa garden kanpainaren emaitza
- 8Hizkuntzen kale-erabileraren neurketa
- 10Dagigun. Hirigintzako batzorde mistoa
- 11Errotazar futbol zelaiaren berritzea
- 12-13Elkarrizketa. Jon Ander Urain, Debako Euskaraldiaren dinamizatzailea
- 14Gaztelekua
- 15Tene Mujika beka
- 16 Agroekologiari buruzko jarduerak
- 17Zahartzaroaren azterketa
- 18-19Laburrak. Agenda
- 20Kolaborazioa. Euskal Kostaldeko Geoparkea
- 21 .Kolaborazioa. Itziaroko Auzo Udala
- 22-23Kolaborazioa. Alderdiak
- 23Gobernuarekin harremana egiteko bideak
- 24Elkarrizketa. Iera Larrañaga, Gure Kai EDT



Deba Berri

© Argitaratzailea: Debako udala.

Egilea: SharinF5 Kooperatiba

Lege Gordailua: L.G.
SSPRAXIAS/FUNCIONES
EJECUTIVAS918-2012

Azaleko argazkia: Debako Euskaraldia



GILEN GARCÍA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

KONTURATZERAKO AZKEN TXANPAN

Uda ezin hobea pasa ondoren, gogotsu heltzen diogu agintaldi honen azken txanpa izango den ikasturteari. Atzera begirada eginez, gogoan dut orain dela 3 urte, Gobernu Planaren aurkezpenean 'Etorkizuna orain' hartu genuela gure markatzen, lanerako ibilbide orria izan duguna, eta izango duguna.

Eta ari gara etorkizuneko Deba eraikitzen, elkarrekin, elkarlanean. Ez dira nolanhikoak geure buruari jarri dizkiogun erronkak, baina ahaleginak merezi du, debarrentzat udalerrri hobea eraiki nahi dugulako, sinisten dugulako egiten dugun lanean, eta hori egiteko dugun moduan.

Indar berezia jarriko dugu mugikortasuna-irisgarritasuna hobetzen, batetik. Artzabalgo espaloia egiten, Osioko sarrera txukuntzen... Bestetik, hirigintza-etxebizitzari buruzko eztabaida estrategikoa egiten, hirigintzako batzorde mistoaren bitartez. Eta hirugarrenik, gure kultura eta ondarea babesteko eta ezagutzera emateko hainbat proiektu gauzatuko ditugu.

LLEGAMOS A LA RECTA FINAL

Después de un verano inmejorable, abordamos con ganas este curso en la recta final de este mandato. Si ponemos la vista atrás, recuerdo que hace 3 años, en la presentación del Plan de Gobierno, hicimos nuestra la marca 'Etorkizuna orain', que ha sido, y es nuestra hoja de ruta.

Ya estamos construyendo la Deba del futuro, juntas, en colaboración. Nos planteamos retos importantes, pero el esfuerzo merece la pena porque queremos construir un municipio mejor para la ciudadanía debarra, porque creemos en el trabajo que hacemos, y en la forma en que lo hacemos.

Por una parte, pondremos especial énfasis en mejorar la movilidad y la accesibilidad. Construyendo la acera de Artzabal, arreglando la entrada a Osio, etc. Por otra parte, llevando a cabo el debate estratégico sobre urbanismo-vivienda a través de la comisión mixta de urbanismo. Y en tercer lugar, realizaremos varios proyectos para proteger y dar a conocer nuestra cultura y patrimonio.



Oro har ona izan da uda denboraldia

Ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean amaitu da, ohi denez, udako denboraldia. 2022. urtekoaz balorazio ona egiten du Udalak. Aurreko bi urteetako murrizketak gaitzuta, jendea -bertakoa nahiz kanpotik etorritakoa- gogotsu ikusi da udaz gozatzen.

Asko eta askotarikoak izan dira Udalak zein herriko eragileek antolatuta egin diren kultura jarduerak: Iturri ondoan, musika kontzertuak, Animadeba, udako musikaldia, organo kontzertuak, margo lehiaketa... Jaietarako eskaintza ere zabala izan da, San Rokeak, Kopraixak, auzoetako jaiak, ondoren Euskal jaia...

HONDARTZA

Eguraldia oso aproposa izan da hondartzara joateko, eta ondorioz, jende asko ibili da. Pandemia aurreko egoerara itzulita, zerbitzu guztiak eskaini dira. Berrikuntza batzuk ere egin dira aurten, oro har ondo baloratu direnak. Esaterako, mugikortasun murriztua dutenentzako toldoak jarri izana, hondarretan jolaserako bigarren voley sare bat jartzea, edota ur-kiroletako eskaintza, eta bi gune egon izana.

Sorospen zerbitzuari dagokionez, ondo funtzionatu du. Aurten, aurreko urteetan baino erreskate gehiago egin behar izan dituzte, aurrekusten ez ziren korronteez sortu baitira, bereziki udaren hasieran. Aulki anfibia asko erabili da aurten.

Hondakinei dagokionez, jende asko egon izanak hondakin kopuru handiak sortzea eragin du. Ildo horretan, horiek biltzeko Ur (h)ondoa garden kanpaina gauzatu da.

TURISMOA

Aurtengo udaran izandako bisitari kopurua iazko datuekin alderatuta %175 hazi da. Tendentzia orokorrari jarraituta, 2019ko udako datuekin alderatuta, ordea, datuak baxuagoak dira, %36,34 bisitari gutxiago erregistratu baita.

Tendentzia orokorra da, halaber, turistek bulegoak gutxiago bisitatzea, kontsulta gehiago egiten baitira internet bidez.

Aurretik esan bezala, eguraldi onak hondartzaren erabilera handitzearekin batera, bestelako ekimen batzuetan jende gutxiagok parte hartzea eragin du. Esate baterako, Geoparkeko bisita gidatuei dagokionez, %21 jaitsiera dira. 2021. urtea errekor urtea izan zen bisita horietara etorritako jende kopuruari dagokionez.

Herriko turismoko enprekin izandako kontaktuen arabera, txukun egin dute lan. Ostalaritzan ere datuak onak izan dira.

Erromesen aterpetxeari dagokionez, apirilaren 25ean zabaldu zen, ordutik 7.000 erromes izan dituzte lotan. Aipatzekoa da ekainaren erditik aurrera egunero bete dela.



Foto: s A. Salegi



La Comisión de Cultura valora muy positivamente las fiestas de San Roke de 2022

Después de tres años de espera las fiestas de San Roke se han podido celebrar con total normalidad y a posteriori la Comisión de Cultura ha realizado este año una muy buena valoración. El ambiente festivo comenzó con el encuentro Deba-Reus celebrado la víspera del inicio de las fiestas, el 13 de agosto.

En su presentación se explicó que la Comisión de Cultura se ha esforzado en elaborar un programa variado y rico, sobre todo porque los últimos tres años han estado llenos de grandes altibajos para muchas familias. Se han llevado a cabo todas las actividades programadas, excepto una, el 18 de agosto, día en el que debido las inclemencias del tiempo no se pudieron realizar los embolados del mediodía para menores.

El alcalde Gilen García también considera que la valoración de las fiestas de San Roke de este año es muy buena. “El Ayuntamiento hizo un llamamiento a la ciudadanía para que disfrutara de las fiestas paritarias, respetara el entorno y al resto de personas y actuara con responsabilidad, y así ha sido. Y eso ha sido gracias a la actitud de la ciudadanía y al gran trabajo realizado por los agentes sociales. Además, todas las personas estábamos entusiasmadas y esos días hemos percibido una energía especial, la gente ha estado a gusto, disfrutando de una manera diferente a la de los últimos años”.

Gilen García Alkatea:
“Gogotsu geunden eta energia berezia somatu dugu jendearengan. Jaiak ondo joan dira pertsona gehienek jarrera onari esker”.



García también se ha referido a dos momentos emotivos. “El momento propio de inicio de las fiestas ha sido especial, que Txaro Garate lanzara el chupinazo fue muy emotivo. Quisimos agradecer a Deba y a las debarras su aportación al municipio. Junto a ella estuvieron personas que organizan el Umeen eguna y del grupo de euskal dantzak Gure Kai. Todas estas personas son una muestra de la aportación que los agentes de Deba hacen al municipio. El segundo momento especial fue, a juicio del alcalde, el reparto del pañuelo a las niñas y niños nacidas desde el 1 de agosto de 2019. “Eran muchas esta vez, divididas en cuatro turnos, y cantamos el bertso a cada grupo llenas de emoción. Ahí está el futuro de Deba y les debemos una bienvenida especial”.

Por lo tanto, en general, las fiestas han ido muy bien, no ha habido que lamentar ningún incidente grave y han transcurrido sin ningún problema grave, tampoco hubo que activar el protocolo de agresiones machistas.



Mugikortasuna, ondarea eta etxebizitza dira Udal Gobernuarentzat 2022-2023 ikasturteko lehentasunak

Mejorar la movilidad, cuidar el patrimonio y comenzar el debate estratégico sobre vivienda prioridades para este curso.

2 019-2023 agintaldiaren azken ikasturtean murgildu da Udala, eta Udal Gobernuak ikasturterako erronkak definitu ditu. Gilen Garcia Alkatearen esanetan, “Deba eta biziberritzen ari gara, etorkizunera begira jarritz, bai egindako lanen bitartez, eta baita horiek egiteko moduarekin ere. Gobernuaren jardunaren iparrorratza den Gobernu Planaren oinarri 'Etorkizuna orain' leloari jarraituta.

Alkatearen esanetan, “gogotsu eta ilusioarekin” helduko dio taldeak azken txanpari. Indar berezia jarriko du, batetik, mugikortasun-irisgarritasun lanetan. “Deba bizitzeko leku hobea izan dadin, pertsonen mugikortasunerako urrats garrantzitsuak emango ditugu”. Ikasturtea amaitzerako hainbat lan egingo dira, horietako batzuekin, gainera, Alkateak esan duenez, “herritarren aspaldiko eskaerei erantzungo zaie. Lanok hiri edo herri eredu berrietara urratsak emanez, oinezkoak lehenetsi eta segurtasuna handitzea ekarriko dute”. Ildo horretan kokatu ditu, esaterako, Artzabalgo espaloia egitea, Osioko sarrera txukuntzea, Calbeton aldapa ingurua eta Itxas Gain aldera doan espaloia birmoldatzea.

Deban bizitzeari lotuta, bestalde, hirigintza-etxebizitza arloari ere lehentasuna emango zaio. Bertakoek bertan geratzeko aukera izan dezaten. Horri erantzuteko, etxebizitzari lotutako eztabaida estrategikoak abiatuko dira. Aurrera egiteko beharrezkoa da atzekoa ez ahaztea. Ildo horretan, Deba duen ondare eta kultura babesteko, berreskuratzeko eta ezagutzera emateko ere hainbat proiektu gauzatuko dira. Historiaurreko bailararen ibilbidearen proiektua gauzatuko da, Santa Maria elizaren inguruan ere txukunduko dira. Horiek guztiek udalerrira kanpoko pertsoneri erakusteko baliagarriak izango dira, Geoparkearekin batera.

Hori guztia ezinezkoa litzateke ingurunea zaindu gabe, horregatik, “trantsizio energetikoan urratsak ematen jarraituko dugu, argiteria publikoa aldatuz eta kiroldegian plaka fotovoltaikoak jarritz, esate baterako.

Egitekoetan bai, baina horiek egiteko moduen ere jarriko du arreta Gobernuak, Alkateak adierzi duenez, “hau guztia, eragile eta herritarrekin partaidetzan egingo dugu, erakunde publiko ezberdinekin elkarlanean, Dagigun partaidetza prozesuarekin abiatutako egiteko modu berria oinarri hartuta”.

'UR (h)ondoa garden' kanpainak balio izan du hondakinen inguruan kontzientzia lantzeko



Los residuos que se pudieron ver tras dejar sin limpiar la mitad de la playa durante 4 días, confirmó que hay todavía mucho trabajo de concienciación por hacer.

Debako ur-eremuen inguruko kontzientziazio lana egiteko, eta inguru horietako hondakinak jasotzeko ekimena da 'Ur (h)ondoa garden'. Aurtengo udan gauzatu du Debako Udalak hainbat eragileren eta herritarren laguntzarekin. Kanpainaren balorazioa ona da, eta helburua lortu dela esan daiteke, zer pentsatua eman baitie herritarrei plastikoaren erabileraren inguruan. Askotariko ekimenak egin dira. Esaterako, garbiketa-saioak, bisita gidatuak, dantza eta musikarekin

osatutako ikuskizuna edota sentibilizaziorako komunikazio-euskarriak hedatu. Ur-eremuetako hondakinak biltzeko Willy Berasaluzek material birziklatuekin egindako bi eskultura jarri dira, bat balea formakoa eta bestea txitxarro formakoa. Deigarriak izan dira bertan jasotakoak. Egindako hiru garbiketa-saioetan espero baino hondakin gutxiago jaso da, beraz, itsasoak uda honetan ez duela zakar handirik ekarri esan daiteke. Guztira 125 kg. plastiko eta 71 kg. errefusa bildu dira. Hondartzako biodibertsitatea

ezagutzeko bisita gidatuek ere harrera ona izan dute. Parte hartu duten pertsona gehienak Euskal Herrikoak izan dira. Debako ikasleek Luzaro ikastetxearen bitartez itsasadarra eta hondartzako biodibertsitatea ezagutzeko bisita pedagogikoak egiten dituzte, beraz, gure inguruko altxorrek ezagutzen dituzte dagoeneko.

Hondartza erdia 4 egunez garbitu gabe uzteak eztabaida sortu zuen. Egun eguzkitsuak izan ziren, eta hondarretan zehar sakabanatutako hondakinak (plastikozko botilak, latak, ontziak) ikusteko aukera egon zen. Bigarren eta hirugarren egunean, hondartzako ohiko erabiltzaileek hondakin horietako batzuk jaso zituzten. Egun horietan ikusi zen kontzientziazioan oraindik ere lan handia dagoela egiteko.

Ekainean, hiru egunez, CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa eta horri lotutako argazki-erakusketa egin ziren.

Kanpainaren balorazioa positiboa da, hortaz, herritarrei eta kanpoko pertsoneri plastikoei buruz pentsa dezaten eman baitzaie. Parte-hartzaileei dagokionez, tokiko hainbat eragilek parte hartu dute, bereziki Luzaro ikastetxeko ikasle eta irakasleek, Amilaitz eta Debakayak elkarteek eta, oro har, herritarrek. Herritik kanpoko Eibarko eta Realeko urpekaritza elkarteek ere parte hartu dute. Guztira 860 pertsonak parte hartu dute ekitaldi batean edo bestean.

Plastikoaren erabilera murrizteko, eta horren kudeaketa egokia izan dadin, Udalak ez du baztertzen datozen urteetan jarduera gehiago martxan jartzea. Ekimena egiteko Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren diru-laguntza jaso da.





Oharra: Txosten osoa Debako Udalaren www.deba.eus webgunean ikus daiteke.

	Ibilbidea	2017	2021
Deba		48,91	41,42
	Lagina	3.116	5.041
Itziar		88,84	89,97
	Lagina	2.088	3.800

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, DEBA 2021; Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, UEMAKo udalerriak eta Tolosaldea, 2017.

Bilakaera (2017-2021)

		Hau- rrak (2-14 urte)	Gaz- teak (15-24 urte)	Hel- duak (25-64 urte)	Adin- ekoak (>64 urte)	
Deba herrigunea	2017	73,5	53,4	36,7	23,2	
		Lagina	1.035	397	1.188	496
	2021	58,0	48,6	37,2	33,3	
		Lagina	846	597	2.773	825
Itziar	2017	93,6	84,5	84,9	79,1	
		Lagina	1.043	84	827	134
	2021	95,7	93,3	85,5	87,2	
		Lagina	1.518	120	1.819	343

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, DEBA 2021; Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, UEMAKo udalerriak eta Tolosaldea, 2017.

Erabileraren bilakaera adinaren arabera

Gazteenek hitz egiten dute gehien euskaraz

Hori ikusi ahal izan da Soziolinguistika Klusterrak Deban eta Itziarren egindako hizkuntzen kale erabileraren neurketan. Neurketa Euskal Herri osoan egin da, modu bateratuan, 2021eko urrian eta azaroan. 2017an ere egin zen UEMAK bultzatuta, beraz, baditugu bilakaera ikusteko datu batzuk. Gurean, bereizita egin dira, bi neurraldi horietan, Itziarko eta Debako neurketak, egoera soziologikoak, demografikoak eta soziolinguistikoak ere desberdinak direlako bi guneean eta, beraz, emaitzen aldetik ere, alde nabarmenak egon zitezkeela suma zitekeelako.

“La presencia de menores aumenta el uso del euskera en conversaciones intergeneracionales”

Udalerrian jasotako datuek Euskal Herri osoan jasotako tendentzia berbera erakusten dute. Azken neurketa egiteko unean 10 lagunetatik 6 euskaraz ari ziren, aurreko edizioan baino 2 puntu gutxiago. Debako herrigunean erabilera % 41,4koa den bitartean, Itziarren, % 90ekoa da. Euskal Herrian bezala, Deban eta Itziarren ere, emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara, adin tarte guztietan, gizonezkoek baino.

Argi ikusi da Itziar eta Deba soziolinguistikoki oso desberdinak direla. Erabilerari begira ez ezik, baita seguru asko, herritarrek duten euskara ezagutzari eta haiek etxean jasotzen duten lehen hizkuntzari erreparatuz gero ere. Ezagutza eta lehen hizkuntzak badute eragina erabileran, noski. Zenbat eta gehiago eta zenbat eta hobeto menperatu hizkuntza, orduan eta aukera gehiago erabiltzeko. Eta hala ere, erabilera, ez dago erabat norberaren esku. Inguruak baldintzatzen du (besteek badakiten, nola erraztasuna duten, ze ohitura dituzten...).

Adinari dagokionez, haurrak dira euskaraz gehien egiten dutenak, baina azken ediziotik adin-talde honetan jaitsi da gehien erabilera. Bestetik, haurren presentziak eragina heldu eta adinekoengan, handitu egiten baita.

Gizartea bera ere aldatzen ari da: gurasoek gero eta denbora gutxiago dute seme-alabekin egoteko, eta denbora horren kalitatea ere aldatzen ari da, teknologia berriek gaur egun hartu duten pisua, covid-19ak gizartean funtzionatzeko moduan izan duen eragina (ez da ahaztu behar, adibidez, azken bi urte hauetan ikasle mordoa etxetik aritu dela ikaskuntza prozesua burutzen, lagun tarterik gabe eta, beraz, asko eta asko, inguru euskaldunik gabe...).

Faktore horiek guztiek eragiten dute hizkuntzaren erabileran eta aurrera begira kontuan hartu beharrekoak izango dira, hizkuntza politika egokiak diseinatu ahal izateko.

“Las mujeres, en todas las franjas de edad, son las que más hablan en euskera en la calle”



“La movilidad y la seguridad de peatones mejorarán con la construcción de la acera de Artzabal”

“Con la obra se da respuesta a una petición ciudadana que viene de lejos”

Foto: A. Salegi

Oinezkoen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetuko dira Artzabalgo espaloia eginda

Aspaldiko eskaerari erantzunez, Artzabal auzoko 1 eta 13 zenbakien artean (200m inguru) espaloi berria egingo da, gaur egun dagoen paseoa hilerri berriko ingurunearekin eta Errotazar futbol zelaiarekin lotzeko. Modu horretan, erraztu egingo da oinezkoek bidea erabiltzea, segurtasuna handituz.

Lanak hilabete eta erdian egitea aurreikusi da. Irailaren amaieran hastekoak ziren lanak urrian hasi dira, hornikuntza arazoak izan baititu enpresak. Beraz, okerrik ezean, azaroaren amaierarako amaituta egongo dira.

Lanak diharduten bitartean, errietako bat bakarrik egongo da erabilgarri, eta trafikoa semaforoekin ordenatuko da. Artzabalgo aparkalekurako sarrera-irteera libre utziko da, aparkalekua erabilgarri egongo baita, inguru horretako espaloia egiten den unean izan ezik, orduan itxi egingo baita. Oinezkoentzat pasabidea ere bermatuko da.

Espaloia errepidearen kota berdinean egingo da, hau da, ez da koxkarik egongo, eta bien arteko banaketa egiteko baliza islagailuak (“reflektanteak”) jarriko dira. Espaloia zabalera erabilgarria aldakorra izango da, gutxienez 1,24m-koa izango delarik. Espaloia lekua egiteko, errepideko erreia estutuko dira, eta noranzko bakoitzean 3,00m-ko zabalera izango dute. Argiteria eta euri uren sarea guztiz berrituko dira.

Obra Asfaltados y Construcciones Morga S.L. Enpresari esleitu zitzaion. 185.239,20€ko (BEZ barne) aurrekontua du. Obra Debako udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu dute, sinatu zuten hitzarmen baten bitartez. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak errepidean egingo den lana finantzatu du (haren eskumenekoa baita), gehienez ere 114.586,71 €rekin (BEZ barne). Espaloi berriari dagokion kopurua, Debako Udalak hartuko du bere gain.



La comisión mixta de urbanismo diseña los próximos pasos a dar

Hirigintza batzorde mistoak espazio horizontala eta berdintasunean oinarritutakoa sortuko du. Politikariek, teknikariek eta adituek adostuko dituzte herritarrei kontsultatuko zaizkien politika publikoak.

La creación de esta comisión de urbanismo mixta nace de las necesidades que la misma ciudadanía expresó en el proceso participativo de la Alameda y basa su estructuración en alcanzar los objetivos y acciones propuestas.

Formada por representantes políticos de los tres partidos que conforman la corporación, personal técnico del Ayuntamiento y personas expertas en materia de urbanismo y del ámbito jurídico. A finales de septiembre se ha reunido por tercera vez. Han definido el calendario para los últimos meses y han podido conocer los procesos de creación de los Planes Generales de tres municipios a través de sus respectivas alcaldesas.

Con la creación de esta comisión se responde a varios puntos del Plan de Gobierno 2019-2023. Como el punto número 20 (Estudio sobre la ordenación general del municipio) y a los puntos 90 (poner en marcha procesos participativos), 91 (Cumplimentar un cuestionario y recabar aportaciones), número 92 (Impulsar la cooperación con la Dirección de Participación ciudadana de DFG) y la número 94 (Poner en marcha dinámicas para realizar reuniones participativas en los barrios).

Es un espacio estratégico porque tendrá como objetivo principal el debate de las temáticas claves para alcanzar la habitabilidad y sostenibilidad del municipio, así como promover el consenso entre todos los agentes implicados para la definición de líneas estratégicas de actuación en materia urbanística y medioambiental.

La comisión mixta de urbanismo generará un espacio horizontal e igualitario en donde personal político, técnico y experto según las temáticas, consensuarán las políticas públicas que serán también consultadas y participadas por la ciudadanía, para:

- Cumplir con el mandato de los resultados de la participación ciudadana del anterior proceso participativo de la Alameda.
- Dotar al ayuntamiento de Deba y a Itziarko Auzo Udala de otro instrumento de cooperación administrativo-ciudadana permanente, esta vez en el ámbito transversal de la ordenación urbanística, la sostenibilidad y el medioambiente.
- Posibilitar realizar de manera participada el Documento de Criterios y objetivos para la revisión del Plan general de Ordenación urbanística.
- Crear una comunidad energética si las jornadas temáticas previas sobre las comunidades energéticas anima a participar la suficiente masa crítica de ciudadanía.



“Gracias a la renovación esta instalación deportiva de gran uso, ha dado un gran avance en calidad y eficiencia energética”

“Los trabajos realizados tendrán un impacto positivo en el desarrollo técnico y físico de las y los deportistas”

Kalitatean eta efizientzia energetikoan urratsa eman da Errotazar futbol zelaia berrituta

Urrian hasi dira futbolariak berriz ere Errotazar futbol zelaian jokatzeko. Belar artifiziala aldatu, eta zaharkituta zeuden argiteria eta ureztatze sistema ere berritu dira. Belarra orain dela 14 urte zen, eta nahiko egoera onean iraun du orain arte. Hala are, azken urteetan bere egoerak okerrera egin, eta aldatzeko beharra ikusi zen.

2019an, Amaiak bat taldeko ordezkariekin izandako bileretan, Udal Gobernuak konpromiso bat hartu zuen; 2021-2022 denboraldiaren amaieran, eta taldearen 75. urteurrena aprobetxatuz, belarra aldatu, eta beharrezkoak ziren bestelako hobekuntzak egingo zituela. Eta hala egin da.

“Lan horien ondorioz, erabilpen handia duen kirol instalazioak, kalitatean eta efizientzia energetikoan aurrerapauso handia eman du”, Antxon Etxeberria Larrea Kirol zinegotziaren esanetan. LED motakoak dira jarri diren argiak, Debako Udala udalerriko beste hainbat gunetan jartzen ari den modukoak, alegia.

Egindako lanok kirolarien garapen teknikoan eta fisikoan, lesioen prebentzioan, esaterako, eragin positiboa izango du. Kontuan izan behar da Errotazarretik astero-astero hirurehunik gora ume eta gazte pasatzen direla.

Abuztuaren 19an hasi ziren lanak, eta irailaren amaieran bukatu, hasiera batean aurreikusitako baino beranduago merkaturatu, garraioan eta beste esparru batzuetan suertatu diren arazoek eraginda, ekipoen horniketa atzeratu egin baita.

Obras y pavimentos especiales, S.A. (OPSA) enpresari esleitu zitzaion Errotazarreko belar artifiziala aldatzeko obra, 237.716,04 euroko aurrekontuarekin. Argiteria aldatzeko lana, berriz, TECUNI SAU enpresari, 99.627,52 euroko aurrekontuarekin. Ureztatzeko sistemak 9.064 euroko aurrekontua izan du.



Jon Ander Urain
(Deba, 1997)

“Kantitateari baino gehiago, ariketaren kalitateari emango zaio garrantzia”

Hirugarren edizioa du Euskaraldiak, eta Debak aurten izango du lehenengoz ekimeneko herri-koordinatzailea. Elkarrizketa egin diogu Jon Ander Urain (Deba, 1997) herritarrari, aurretik ibilia da herriko hainbat kultur eragiletan (Gazte Asanblada, Negudak, Kultur Elkartea), eta koordinazio lanak ere egin ditu zenbait ekimenen antolakuntzan. Bertatik bertara ezagutzen du herriko kultur mugimenduen jarduna, eta, oraingoan, berak koordinatuko du euskararen inguruko egitasmoa.

Zertan datza Euskaraldia?

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da. Aurtengo edizioa azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo dugu. Helburu nagusia hiztunen hizkuntza-ohituretan eragitea da, horretarako, norbanakoa hizkuntza-portaeratan gogoeta egitera bultzatuz eta jardun edo rol aktibo bat proposatuz.

Nola lortuko duzue jendeak parte hartzea?

Aurreko edizioetan parte hartu dugunok mezua jasoko dugu aurtengo parte hartzea berresteko. Lehen aldiz parte hartu nahi dutenek, berriz, izena emateko aukera izango dute herrian jarriko ditugun mahai informatiboetan. Komunikazioari dagokionez, kalean kartelak jarriko ditugu informazioarekin, eta horrez gain, Instagramen (@debaeuskaraldia) eta Facebooken (Debako Euskaraldia) ere zabalitzen dugu informazioa.

Hirugarren edizioa da aurtengoa. Zein aurreikuspen dituzue?

Aurtengo edizioan

parte-hartzaile kopuruari baino gehiago, ariketa ondo egiteari emango diogu garrantzia; kideen arteko aldaketei eta erronka txikiei. Kantitateari baino gehiago, ariketaren kalitateari emango zaio garrantzia.

2018an egin zen lehen aldiz, eta parte-hartzea espero zena baino handiagoa izan zen. 2020an, berriz, pandemia bete-betean, zaila izan zen ariketa planteatzea bera ere. Aurten indarberrituta gatoz: jendeak parte hartzea nahi dugu eta, batez ere, jendeak ariketa ondo, modu kontzienteagoan, egitea nahi dugu. Ahobiziek uneoro euskaraz egingo dute aurrekoek ulertzen dieten guztietan eta Belarriprestek hala egin dezatela eskatuko diete.

Zergatik da garrantzitsua Euskaraldia euskararen normalizaziorako?

Ariketak izaera masiboa duenez (orain arte 300 mila pertsonak hartu dute parte), beste egoera batean iristea zaila izan daitekeen leketara eta jendearengana iristea ahalbidetzen du. Gainera, Euskaraldiak hitz egitean jartzen du fokua, hots, euskara

ulertzen dugun hiztunen artean ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzean, eta hori euskararen iraupenaren gakoa izan daiteke.

Ekimena hasi bitartean bestelako jarduerarik antolatu duzue?

Irailean egin genuen lehen batzarra, eta norbanakoez gain, elkarteen ordezkariak ere hartu zuten parte. Horietako batzuek euren burua aurkeztu zuten ekintza kulturalen bitartez herria Euskaraldian murgiltzeko. Urriaren 4an, berriz, Herri Batzordea egin genuen, eta egutegi kulturala osatzen hasi ginen. Horrez gain, Urriaren 7an, arratsaldean, #HitzezEkiteko ekitaldia ere egin genuen Plaza Zaharrean. Bertan, aurreko edizioetan parte hartu duten herritar batzuk izan genituen, eta kontatu zuten zein aurrerapauso sumatu dituzten hizkuntza-ohituretan Euskaraldiaren ondorioz. Horrez gain, aurtengo ediziorako dituzten erronkak ere azaldu zituzten. Ondoren, herritar guztiek aukera izan zuten euren lorpenak eta erronkak post-it batean idazteko eta arbelean itsasteko.

¿Qué es Euskaraldia?

Se trata de un ejercicio social masivo para cambiar los hábitos lingüísticos entre las personas que entienden euskera. Esta es la tercera edición y se celebrará del 18 de noviembre al 2 de diciembre. El objetivo principal es incidir en los hábitos lingüísticos, animando a cada persona a reflexionar sobre los comportamientos lingüísticos y proponiendo una participación activa.

¿En qué consiste el ejercicio?

En el ejercicio se distinguen dos roles: por un lado, AHOBIZI; y por otro, BELARRIPREST. AHOBIZI tratará de hablar en euskera en todo momento: la primera palabra en las conversaciones será siempre en euskera, y si le entienden, seguirá en euskera. En cambio, en las conversaciones bilingües mantendrá el euskera cuando la otra persona lo entienda. En cambio, BELARRIPREST, decide periódicamente cuándo y con quién hablar en euskera. Quizá no hablen en euskera con todas las personas que lo entienden, pero las que saben euskera quieren que se les hable en euskera.

En cuanto a la participación de las entidades, pueden crear espacios llamados ARIGUNE. Estos son espacios que garantizarán la posibilidad de hablar en euskera.

¿Cómo participar?

Las personas que hayan participado en ediciones anteriores recibirán un mensaje para confirmar la participación de este año. Las interesadas en participar por primera vez tendrán la oportunidad de inscribirse en las mesas informativas que se instalarán en la localidad.



DEBAKO GAZTELEKUA

Osio, 7

ASTEARTETIK OSTEGUNERA:

17:00-19:00

OSTIRALETIK IGANDERA,

JAIEGUN ETA JAI BEZPERATAN:

17:00-20:30



Gaztelekua: Aisialdi hezitzailearen bitartez gaztetxoak herritar aktibo izan daitezten laguntzeko udal zerbitzua

Gaztelekua aisialdia baliatuz 12 eta 17 urte bitarteko nerabeak bizitzarako trebatzea jomuga duen zerbitzu publikoa, euskalduna, doakoa eta profesionala da. Zerbitzuaren funtsa aisialdiaren eta heziketaren arteko elkartrukean oinarritzen da. Halaber, gaztetxoak herritar aktibo izateko prestatzea du xede, haien garapen emozionala eta autonomia sustatuz, eta nerabeak gizartean murgilduz. Nerabeen bilakaera pertsonala suspertzeko, proposamen ludiko eta entretenigarria eskaintzen da; heziketa helburu izanda, aisialdia eta dibertsioa gure lanabes gisa baliatuz. Ikasturte hasieran, erabiltzaile berriek, zein haien gurasoek eta tutoreek zerbitzua ezagutzeko ate irekien jardunaldiak egin dira.

AISIALDI HEZITZAILEA

Nerabeek haien adinekoekin harremanak lantzeko espazioa da. Nerabeak erdigunean jarriz, eta hauen inplikazioa sustatuz, haien iritziak kontuan hartu eta programa beraiekin elkarlanean osatzen da.

Nerabe guztiei zuzendutako elkargune inklusibo bat bermatzea da helburua, hau da, desberdintasun egoeran dauden nerabeei ere komunitatean integratzen lagundu nahi zaie.

Horrez gain, Gaztelekutik kanpo esparrua ere sustatzen da herriko beste errealitate eta eragileekin harremana eginez. Nerabeen presentzia gizartean indartzeko, komunitatean txertatzeko.

HEZITZAILE PROFESIONALAK

Gaztelekuan gizarte hezitzaileek egiten dute lan, nerabeek figura erreferenteak izateko.

EKIPAMENDUA-TOPALEKUA

300m2 dituen lokala da. Bertan sukaldea, tailerra, areto balioanitz, kirol gunea, bulegoa eta egongela daude; eta espazio hauen guztien artean denbora pasatzeko hainbat elementu: futbolina, ping-pong mahaia, billarra, sofak, telebista, proiektoreak, ordenagailua, wii-a, erabilera anitzeko kirolerako eremua (boleia, minifutbola...), belarrezko eremua...

EKINTZAK ETA PROZESU HEZITZAILEAK

Eskolako oporren garaietan (Gabonak, inauteriak, aste santua, zubiak eta uztaia) irteerak egiten dira; besteak beste, ur-parkeetara, Santa Klara uhartera, paintball-era...

Gainera, 15-17 urte bitartekoekin, autonomia eta ardura maila ezberdinetako heziketa proiektu askotarikoak garatzen dira, ikasturte bukaera bakoitzean, autogestioz lortzen duten bidaia gauzatzeko: Saharar kanpamenduak, Menorka, Zuhatza, Warner, Jaca, Bartzelona...

Ikusezina agerian jartzeko helburuarekin idatzi du Jon Abrilek 'Isilpeko eskuak' liburua



El objetivo del escritor ha sido mostrar la represión que el franquismo y la Iglesia ejercieron sobre las mujeres

2021. urteko Tene Mujika bekaren irabazleetako bat da Jon Abril. Debako Udalak Elkar argitaletxearekin elkarlanean ematen duen bekaren bitartez 'Isildutako eskuak. Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian' liburua idatzi du Abrilek. Liburuaren aurkezpena Debako Agirre jauregian egin zuen, irailaren 15ean.

Tene Mujikaren lana argitan jartzeko, iaz abiatutako bidearen amaiera izan zen liburuaren aurkezpena neurri batean, Aritz Larrañaga Unanue Kultur zinegotziak aurkezpenean esan zuenez. “Irailaren 16 batean hil zen Mujika, orain dela 41 urte. Bere heriotzaren 40. urteurrenean Debako Udalean erabaki genuen orain artean egindako lana indartu egin behar genuela, eta ahalegin berezia egin behar genuela Tene Mujikaren pertsona eta lana ezagutarazten”.

Tene Mujika saria lehenengo, eta beka ondoren, irabazi duten liburuen azalekin ondutako erakusketa izan zen abiapuntua. Ondoren etorri dira beste hainbat ekimen, mahai-inguru, hitzaldi, ilustrazio lehiaketa eta beste.

Larrañagak Tene Mujika bekaren bitartez argitaratu diren liburuan maila ona aipatu zuen, eta Abrilen lanaz esan zuen maila horretan kokatzen dela.

Memoria ariketa bat izan dela esan zuen idazleak. “Frankismoak eta Elizak emakumeengan jarri zuen errepresioa erakustea izan da helburua” idazlearen esanetan. Horretarako, Euskal Herriko 11 lanbidetan aritutako hamalau emakume elkarrizketatu ditu Abrilek, eta haien bizipenak kontatu ditu.

Gerra garaitik 1980ko hamarkadara bitarte laneratu ziren emakumeak dira.

Euskal Herri osoko emakumeak elkarrizketatzen ahalegindu dela nabarmendu zuen Abrilek, geografiaren arabera lanbideak aldatu egiten baitira. Hala ere, adierazi zuen ezin izan zuela elkarrizketatu Bizkaiko ezkeraldean meatzari lanetan aritutako emakumerik.

2016an 'Neskatoak' dokumentala egin zuen Abrilek, eta hori du neurri batean oinarri liburua. Idatzizkoan erosoago ikusten du bere burua, eta horregatik hasi zen libururako proiektua lantzen. Tene Mujika bekaren berri izateak lagundu zion proiektua gorpuzten, aurkezpenean esan zuenez.

Liburuko protagonistetako batzuk proiektio publikoa izan dutenak direla ere aipatu zuen, esaterako, lehen kapituluan jasotzen den kasukoa, Libe Goñi Seaskako lehen irakaslea. Ume zela Otsagabian (Nafarroa) behizain hasi zen Milagros Landaren kasua ere aipatu zuen.

Jon Artanorena hurrengoa

Beka irabazi eta argia ikusiko duen lana Jon Artano kazetari zestoarrarena izango da. Berak irabazi baitu 2022ko Tene Mujika beka, Ameriketara ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta gure artean dabilzan hainbat amerikarrenak kontatu nahi dituen 'Anderik Ande' izeneko proiektuarekin. Amerika eta euskaldunen arteko harremanak aztertuko ditu.

“Landa eremu zabala dugu Deban eta Itziarren baina lehen sektorea beherantz doa”

Cómo llenamos nuestro plato trae consecuencias, como proteger más o menos el medioambiente, respeto a los animales, etc.

Urriaren hasieran agroekologiaren eta elikaduraren inguruko ekintzak egin dira Deban, 'Zure plateran hasten da mundua' dokumentalaren aurkezpenaren inguruan. Halaber, orain urtebete, udalbatzak aho batez onartu zuen Agroekologiaren aldeko hirien sarean sartzea. Nerea Arrizabalaga Badiola Ekonomiaren Sustapena eta Landa Eremuaren Garapenerako zinegotziarekin hitz egin dugu gaiaren inguruan.

Agroekologia gora eta behera ari gara, baina zer da?

Agroekologia kontzeptu zabala da, ekoizpen eredu ekologikoaz harago, ekonomia, pertsonak eta tokia ere barneratzen ditu. Bioaniztasuna bultzatzen du, animalien errespetua eta osasuna, kutsadura gutxitzea, lurraren zaintza, energia kontsumoa... Tokikoa izatea, merkaturatze bide laburrekin, lehengaien jatorria gertukoa izatea... Eta ekonomia soziala du ardatz, baserrien autonomia bilatuz, lan baldintza duinak eta ongizate pertsonala, emakumeen parte hartzea zainduz, kolektiboetan antolatuz...

Eta horiek beharrezkoak dira...

Baserrri edo proiektu bat denboran iraunkorra izan dadin zaindu beharreko alderdiak dira horiek guztiak.

Gure plateran hasten da mundua?

Lehen mundua esaten zaion horretan, alegia, gure inguruan, adibidez, egunero jaten dugu, behin baino gehiagotan. Baina nola betetzen dugu gure platera? Zerekin betetzen dugun

hautua egiteak gauza asko dakar berarekin; ingurunea gehiago edo gutxiago kutsatzea, bertoko ekonomia edo multinazional handiena bultzatzea, elikagai horien atzean dauden pertsonen eta animalien bizi baldintzak...

Zergatik jardunaldia?

Debara ekintza multzo hau ekartzea egoki ikusi dugu herritarrak gaiaz informatzen eta sentsibilizatzen joan gaitzen. Herriko denden eta inguruko ekoizleen garrantziaz jabetzeko.

Nolako da lehen sektorearen osasuna?

Landa eremu zabala dugu Deban eta Itziarren, baina lehen sektorea beherantz doa, oso gutxi dira ogibide bezala duten pertsonak, eta are gutxiago salmenta zuzena egiten dutenak, eta horrek kezkatzen gaitu.

Eta zer eskaintzen digute?

Eredu jasangarri bat jarraitzen duen baserriak ez digu kalitatezko elikagaiak bakarrik eskaintzen, paisaia bat sortzen du, jakituria gordetzen du, herritarrak elikagai horiek lortzeko prozesuetara gerturatzen ditu... ekoizle horiek eta haien produktuak eskuratzeko merkatu eta denda txikiak bizirauteko beharrezkoak gara herriko kontsumitzaileak. Esfortzu edo denbora gehixeago eskatzen du, bai, kontsumitzeko eredu honek, baina ordainetan norberarentzat kalitate eta konfiantzazko produktuak ditugu eta inguruan eragin positibo asko.

La proyección sobre el envejecimiento de la población lleva a reflexionar sobre el modelo de atención

El envejecimiento de la población es un reto notable para la mayoría de las políticas públicas en materia social y, especialmente, para los servicios sociales. Por un lado, junto con el aumento de la esperanza de vida de la población también está aumentando el número de personas mayores, así como las situaciones de vulnerabilidad e imposibilidad asociadas a la edad; de otro, el desequilibrio generacional que supone el envejecimiento de la sociedad tiene implicaciones significativas en el sistema de servicios sociales porque, a medida que van disminuyendo los recursos informales para atender las necesidades sociales, supone un incremento de la intervención de los servicios formales y puede suponer dificultades para su financiación.

Como primer paso para dar respuesta a este reto, es imprescindible saber cuánto crecerán las necesidades sociales adicionales derivadas del envejecimiento. Aunque la incertidumbre de lo que vaya a suceder en el futuro no posibilite realizar estimaciones de alta precisión, sí es posible identificar cuáles pueden ser las principales tendencias. En la actualidad no existen estudios de la evolución futura de la población, por lo que el Ayuntamiento de Deba ha encargado al Servicio de Información e Investigación Social (SIIS) realizar ese estudio en el municipio.

Según las proyecciones realizadas, en 2034 la población de Deba se situará cerca de la cifra actual, con 5.363 habitantes (78 personas menos que en 2021). Cabe destacar que el envejecimiento de la población de Deba se acentuará notablemente, dato que se refleja claramente en los valores considerados por diferentes indicadores para 2034; la mediana de edad, por ejemplo, crecerá de 48 a 52 años. Por lo que respecta a la esperanza de vida, se espera que

aumente 2,1 años entre los hombres (hasta 82,4 años) y 1,3 años entre las mujeres (hasta 87,8 años). Así, se proyecta un crecimiento del 26,5 % de la población mayor de 65 años. Lo cual conllevará la modificación de la estructura interna de la población mayor.

Se prevé una prevalencia creciente de las situaciones de dependencia, debido a los casos de menor intensidad. Así como una reducción de la disponibilidad del cuidado informal. A modo de ejemplo, cabe destacar la previsión de que para el año 2030 la población mayor de 65 años supere a la de 45-64 años. En 2034 el 58,2% de la población dependiente contará con una persona del entorno informal como principal cuidadora. En comparación con el año 2021, la prevalencia sería 7,9 puntos inferior (reducción del -12,0%).

También se puede vislumbrar en la proyección un aumento de la tasa de demanda de servicios de atención orientados a personas mayores dependientes: 5,2 puntos superior a la actual.

Estas tendencias ponen de manifiesto la necesidad de repensar el tema del cuidado, en general y el de las personas mayores en particular. El Ayuntamiento de Deba cree prioritario este tema, puesto que hay que tener en consideración el trabajo que han realizado estas personas a lo largo de su vida, y merecen vivir una vejez en las mejores condiciones posibles.

Egindako prospekzio batek erakusten du Debako gizartea nabarmen zahartuko dela 2034an. Horrek zaintza eredian birpentsatzea eragin du.

Azaroaren 11ra arteko epean eman daiteke izena Debako 'Beldur barik' lehiaketan

Beldur Barik programak 'Beldur barik jarrera' ikus-entzunezko lehiaketaren 13. edizioa antolatu du. Lehiaketaren xedea emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen adierazpenak aintzat hartu, baloratu eta bultzatzea da. Lanak azaroaren 11ra bitartean aurkeztu ahal izango dituzte 12-20 urte bitarteko gazteek. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 25ean, 17:00etan, Agirre jauregiko Ispiluen gelan egingo da. Informazioa www.deba.eus webgunean dago ikusgai.



Arrantzale kalea luce nuevo asfaltado

A principios de octubre el Departamento de Puertos del Gobierno Vasco ha renovado todo el pavimento asfáltico que discurre entre la arboleda desde el paso de la estación hasta el paseo de la playa. A su vez, va a comenzar a sustituir, en diferentes fases, la barandilla actual de cemento por una de acero inoxidable.

Erandioko Jose Miguel Arranzek irabazi du Kaleko margo lehiaketaren sari nagusia

20 pertsonak parte hartu dute 2022. urteko Kaleko margo lehiaketan. Irailaren 10ean egin da lehiaketaren 53. edizioa. Debako Udalak Cardenas Fundazioaren eta Haitz Haundi Elkarte Artistikoaren laguntzarekin antolatzen duen sariketa da. Margolariak Debako inguruetakoa ageriko tokietan sortu dituzte haien lanak, gaia librekoa izan da, eta teknika libreak erabili dituzte, aurreko edizioetan bezala. Saritu gabeko herriko lehen sailkatua Nagore Gonzalez izan da.



Askotariko ekimenak Garapenerako lankidetzaren astean

Garapenerako Lankidetzaren astea egin da urrian. Aurten IV. Elkartasun azoka urriaren 15ean egin da. Herriko kooperazio taldeek haien proiektuen berri eman, eta produktuak saldu dituzte.



Bizikidetzak hobetzeko plana egingo du Udalak

Debako Udalak ekintza koordinatuak bultzatu nahi ditu datozen urteetan, atzerritar jatorria duten pertsonen eta bertako biztanleen integrazioaren eremuan, udalerriko biztanleria osoaren bizikidetzak hobetzeko. Ondorioz, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiari laguntza eskatu dio esku-hartze ardatz nagusiak argituko dituen, ekintza politikoko gomendioak planteatuko dituen, eta datozen urteetarako Debako udalerrian lan-gida bat emango duen jardueraren plan at egiteko.

Datu batzuk aipatzearen, 2021. urtean jasotako datuen arabera, udalerriko biztanleriaren %8,5 zen atzerriar jaiotakoa. Migrazio fluxuen eboluzioan covid-19ak erabateko eragina izan du, eta 2020 eta 2021 artean Deban erroldatutako atzerritar jatorriko ertsonen kopuruak behera egin du (-%1,5).

Ezaugarri soziodemografikoen arabera, Deban bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak bertako populazioa autoktonoa baino nabarmen gazteagoak dira.

Debaraneko migrazio fluxuak feminizatuta daude, gehiago dira emakumeak (%54,1) gizonak baino (%45,9). Atzerritar jatorriko pertsonen erdia baino gehiago Latinoamerikako herrialderen batean jaio dira (%54,1). Latinoamerikaren ondoren, Europar Batasuna da jatorriko garrantzitsuenak (%15,8), eta ondoren, Magreb (%7,8). 2022-2025 Kulturarteko Bizikidetzarako Planak hurrengo urteetan, guztira, 20 ekintza edo jarduerak garatzea aurreikusten du. Ekintza horiek lau taldetan biltzen dira.

El pleno municipal aprueba las ordenanzas fiscales para 2023 siguiendo un incremento progresivo preestablecido

En el año 2020 se llevó a cabo una importante actualización de las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Deba, tal y como se explicó en el Pleno de entonces, ya que durante años no se había realizado una actualización general. En el año 2021 se aprobó por unanimidad marcar un criterio de cara al futuro y actualizar las ordenanzas fiscales año tras año para no tener que realizar subidas bruscas significativas, con un incremento mínimo del 1%.

Así, en el pleno ordinario celebrado ayer, 29 de septiembre, el pleno municipal aprobó, por unanimidad, una subida general del 1% en los impuestos y tasas públicas. En cuanto a la recogida de residuos, subirá un 2,8%. En ese caso, se ha hecho la modificación siguiendo las directrices de la Mancomunidad.

Euskal Herriko animazioaren 50. urteurrena ospatu du Animadeba zinemaldiak

Nazioarteko Animaziozko Zinemaldiaren 15. edizioa egin da irailaren 7tik 10era, Deban. Debako Udalak hasieratik bultzatu du, eta urtez urte gero eta babes handiagoa lortu du, Euskal Herriko animazioaren panoraman ezinbesteko hitzordu bihurtuta. Publikoaren, zinemagileen, industriako profesionalen eta artisten topagunea izan da. 'Swallow the Universe' lanak irabazi du 15. edizioa.



Elizburuko etxebizitza tasatuen prozesuak zabalik jarraitzen du

Etxebizitzaren zozketan parte hartzeko izen-ematea abuztuan amaitu ondoren, une honetan jasotako eskariak aztertzen ari da Udala oinarriak betetzen dituzten ziurtatzeko. Horiek aztertuta onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, eta alegazioetarako epea zabaldu. Hori amaituta, behin-betiko zerrenda argitaratu eta zozketaren data eta nondik norakoak zehaztuko dira.

AGENDA



AZAROAK 1: ITZIARKO PERIA. Itziarko industrialdean, Itziarko peria batzordeak antolatua.

AZAROAK 4: BERTSO SAIOA KULTUR EKIN + EUSKARALDIA.

AZAROAK 6: MANUEL MATEO MEMORIALA (lasterketa).

AZAROAK 8, 15, 22, 29: EUSKARAZ JOLASEAN BASTIÑUIXAN.

AZAROAK 13: ZINEMA EUSKARAZ. Zubi guraso elkartearen eskutik Kultur Elkartean.

AZAROAK 12: KALE ANTZERKIA.

AZAROAK 13: KALE ANTZERKIA.

AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 2RA: EUSKARALDIA (ikusitako egitaraua).

18AN: trikitaliak

19AN: Kalean kantuz

20AN: guneko ibiltaria

26AN: Yoga euskaraz

Antzerkia, Bilakatu ikuskizuna, Goaz antzerki taldearen eskutik.

AZAROAK 20: MAGMA MIA BAKARRIZKETA FEMINISTA, Agirre jauregiko ispiluen gelaN, Beatriz Egizabalen eskutik.

AZAROAK 22: SANTA ZEZILIA EGUNA. Goizean zehar Musika banda, txistulariak, soinu-joleak,...

AZAROAK 23: IRAKURKETA KLUBA. ¿Podemos hablar de algo más agradable?. Roz Chast. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal.

AZAROAK 25: INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

BELDUR BARIK sari banaketa, Agirre jauregiko ispiluen gelaN.

ELKARRETARATZEA Foruen plazan.

AZAROAK 26: MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA 13:30ean elizako klaustroan (Santa Zezilia).

AITZURI ABESBATZA herriko kaleetan zehar (Santa Zezilia).

AZAROAK 27: IPUIN KONTALARIAK Agirre jauregiko ispiluen gelaN. **DESBOTERETZE SAIOAK** (eguna, ordua eta lekua zehazteke).

AZAROAK 30: IRAKURKETA KLUBA. Otto Pette. Anjel Lertxundi. Dinamizatzailea: Asier Serrano.

ABENDUAK 1: MINTZODROMOA (Zuhatzak eta Euskaraldiak antolatuta).

ABENDUAK 2: DBHKO LITERATUR SARI BANAKETA (Zuhatzak antolatuta eta Euskaraldiak argazkia gazteekin).

ABENDUAK 2: BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTUA kiroldegian (Zuhatzak, Euskaraldiak eta Udala antolatuta).

ABENDUAK 3: EUSKARAREN EGUNA.

ABENDUAK 11: ZINEMA EUSKARAZ Zubi guraso elkartearen eskutik Kultur Elkartean.

HERRIKO EKOIZLE ETA ARTISAUEN AZOKA, Simon Berasaluze plazan, Udalak antolatuta.

ABENDUAK 17: ORGANO KONTZERTUA Santa Maria elizan.

ABENDUAK 17: KULUNKA urteurrena.

ABENDUAK 18: MIGRATZAILEEN NAZIOARTEKO EGUNA.

ABENDUAK 24: OLENTZERO ETA MARI DOMINGI.

ABENDUAK 28: MONOLOGOA gazteleiaz KULTUR EKIN.

ABENDUAK 29: HAUR PARKEA.

ABENDUAK 30: HAUR PARKEA.

ABENDUAK 31: SAN SILVESTRE lasterketa herrikoia.

MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Plaza Zaharrean.



Zaborrak biltzeko jardunaldia Sakonetako hondartzan, itsas ingurunekeo inpaktua ikertzen laguntzeko

Euskal Kostaldeko Geoparkeak eta AZTI zentro teknologikoak, 30 pertsonako boluntario talde bat bildu zuten urriaren 1ean, larunbata, Deba-Zumaiako biotopo babestuan dagoen Sakoneta hondartzan, itsas zaborren laginak biltzeko.

Ekimenak iraun zuen ordu eta erdian, guztira, hondartzako 330m² lagindu ziren eta 3.579 item bildu ziren gehienak plastikoak, tartean, tapak eta tapoiak, arropa, zapatak eta beira zatiak. Hori horrela, 16,4kg hondakin bildu zuen taldeak.

Ekimenak itsasoen eta itsas ekosistemen kontserbazioari buruzko kontzientziazio handiagoa sortu nahi izan du herritarren artean, eta, AZTIk eta Geoparkeak Sakonetako hondartzan gidatutako ekintzaren kasuan, biotopoak euskal lurralderako suposatzen duen ondare geologiko eta naturalaz ere bai. Izan ere, “ezaugarri bereziak eta paisaia-balio aparta dituzenez, funtsezkoa da Deba-Zumaiako biotopoaren ingurumen-babesa; izan ere, leku horretara iristea zaila da, itsas korronteez bultzatuta iristen baitira itsas zaborrak, eta, besteak beste, marearteko ekosistemen biodibertsitatean inpaktu handiak eragiten dituzte”, azpimarratu du Gonzalo Torre Geoparkeako Ingurumen arduradunak.

“EAEko kostaldean itsas zabor flotatzaileak duen portaera konplexua eta aldakorra da. Asko dira garraioan, metaketan eta sakabanaketan eragina duten prozesu fisikoak, eta, gainera, oso aldakorrak dira geltokiaren eta kokapenaren arabera”, azaldu du Oihane Cabezasek, AZTIko itsas zaborretan adituak.

Deba-Zumaiako biotopoa bezalako balio ekologiko handiko eremuen kasuan, zentro teknologikoak egin berri dituen ikerketen arabera, udaberriaren eta udan Euskadiko kostaldeko uretan errenkada itxurako makro zabor-agregazioek eragina izan dezakete mota horretako ekosistemetan.

Gainera, haizea eta zaborren tamaina bezalako faktoreek ere berebiziko garrantzia dute Euskadiko kostaldean pilotzeko orduan; izan ere, Bizkaiko golko uretan askatzen diren zabor handienak azkarrago eta kantitate handiagoan iristen dira inguruko haretzetara, itsas jardueren ondorioz, hala nola arrantzaren edo itsas garraioaren ondorioz.

Itsas zaborra prebenitzera eta arintzera bideratutako etorkizuneko ekintza zientifikoak eta politikoak ezartzeko ezinbestekoak dira laginketa-jardueren bidez itsas zaborren ugaritasunak eta tipologiak hobeto ezagutzea eta Euskal Kostaldeko Geoparkean horretan dihardugu.

Ikerketa sozioekonomikoa, etorkizunerako abiapuntua

Orain dela zazpi urte eratu zenetik, inguruan dugun errealitate sozial eta ekonomikoaren ezagutza zehatzik gabe egin du lan Itziarko Auzo Udalak. Izan ere, datuen gabezia hau aspalditik datorkigu, eta azken hamarkada hauetan jasandako aldaketen ondoren ez dugu bizi gareneko eremuaren erradiografia zehatzik. Ikerketa sozioekonomikoa ezinbesteko tresna da gaur egungo testuinguruaren irakurketa tekniko bat egin eta datozkigun erronkei aurre egiteko.

Azterlan honen helburu nagusia da dugun egoeraren diagnostiko ahalik eta osoena egitea, garapen sozial eta ekonomikoan eragiten duten arlo nagusiak eta horietan esku-hartzen agenteak aztertuz. Lurralde-eremuaren eta bertako biztanleen bilakaera, egungo egoera eta etorkizuneko izango ditu oinarri azterketak, familien gaur egungo familia egitura, osasun egoera, egoera ekonomikoa, bizitza sozial eta kulturala, zerbitzu eta azpiegiturei buruzko beharrak eta perspektiba sozio-profesionalak kontutan hartuz. Horretarako, Itziarko Auzo Udalaren eremua eta Deba udalerrri osoa ere hartuko dira kontuan.

Informazio zuzenaren bilketa egingo da horretarako, herritarrei inkesta bat eginez. Etxez-etxe egingo da inkesta, eta kontratautako adituak arduratuko dira lanaz. Familia-unitate bakoitzeko solaskide batek emango ditu inkestaren erantzunak, familiako kide guztien inguruko informazioa emanez. Inkesta erantzuteko aukera ezberdinak jarriko dira, erakunde eskudunen osasun eta segurtasun jarraibideen arabera, beti ere: aurrez aurre, telefonoz edo internet bidez. Itziarko etxebizitza eta familia guztiekin kontaktatzeko saiakera egingo da, ahalik eta herritar gehien erantzunak jasotzeko.

Egungo egoerari, bilakaerari eta etorkizuneko aurreikuspeni buruzkoak izango dira galderak, herritarren egoera pertsonalaren eta egoera orokorraren inguruan. Jasotako datuak anonimoak izango dira eta datu emailearen zein familiaren pribatutasuna errespetatuko da beti ere. Garrantzi handikoak eta oso erabilgarriak izango dira 2022eko inkesta honen emaitzak, garapen integral eta iraunkorra bideratzeko orientabideak emango baitituzte. Inkestarekin batera, ezaugarri, baliabide eta potentzialitatei buruzko gogoeta estrategikoa ere egingo da. Horretarako auzo, adin eta jatorri ezberdinetako herritarren partaidetzarako bilera eta elkarrizketak egingo dira eta baita arloaren arabera solaskide kualifikatuei zuzendutakoak ere.

Landa-lana osoa egin eta gero, eta behin bildutako emaitzak Itziarko Toki Erakunde Txikiak izendatutako arduradunekin kontrastatuta, egoera sozioekonomikoari buruzko diagnostikoa landuko du ikerketaren aditu taldeak, hiru ikuspuntu kontuan hartuta: lehiakortasuna, bizi-kalitatea eta iraunkortasuna. Azterketaren emaitzak eta ondorioak jendaurrean aurkeztuko dira azkenik, eta inprimatutako argitalpenean zein euskarri digitalean partekatuko dira.

Azterketa hau Siadeco Ikerketa Elkarrekin egingo du, Itziarko Auzo Udalaren enkarguz. Etxez-etxeko lana abiatzeko denean auzo udalak jakinaren gainean jarriko ditu herritarrak, parte hartzeko deia eginaz.

ehbildu



BEGIRADA ZAINZA KOMUNITARIOAN

Belaunaldien arteko transmisioa ezinbestekoa da kultura eta herrialde guztietan. Familietan aiton-amonengandik gurasoetara, gurasoengandik seme-alabetara,... igarotzen dira ohiturak, identitatea, ezagutza, ... Aurrekoek egindako lana ere herentzian jasotzen dugu, bai familian, baina baita herri mailan ere.

Adinekoak jakinduriarekin, esperientziarekin, lurrarekin dugun loturarekin, herria egitearekin lotzen ditugu normalean. Euren rola dute, eta euren lekua ematea dagokigu. Azken urteotan egin diren ikerketen arabera, adinekoen kopurua gora doa pixkanaka, baita bizi itxaropena ere. Populazioaren piramidea iraultzen ari da, buruz behera jarriko da denbora gutxian.

Horren harira, 2034ari begira, Udalerriko populazioaren eta arreta ereduaren inguruko analisia egin du Udalak. Eta, momentuz, zahartzaro aktiboa, autonomia, segurtasuna, ... sustatzeko dinamikekin eta zerbitzuekin jarraitzeaz gain, zaintza erdua aztertzeke eta zerbitzuak indartzeko hautua egingo dugu, subjektu aktibo behar dugu izan, eragile guztiak (adinekoak, familiak, langileak, ...) kontuan izanik. Honetarako ere, Dagigun partaidetza eta kooperaziorako gunea baliatuko dugu.

La transmisión intergeneracional es imprescindible en todas las culturas y países: las costumbres, la identidad, el conocimiento, ... También heredamos el trabajo realizado por las generaciones anteriores, tanto en la familia como a nivel local y comunitario.

Según los estudios realizados en los últimos años, el número de personas mayores va aumentando progresivamente, así como la esperanza de vida. La pirámide de la población se está invirtiendo.

En este sentido, de cara al año 2034, el Ayuntamiento ha realizado un análisis de la población del municipio y del modelo de atención y cuidado. De momento, además de continuar con las dinámicas y servicios para promover la vejez activa, la autonomía, la seguridad, ... debemos ser sujetos activos en analizar el modelo de cuidados y la potenciación de los servicios. Para todo ello, utilizaremos el espacio de participación y cooperación Dagigun.

ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA!

Irailaren 29an egindako osoko bilkurako puntu garrantzitsuenetariko bat ordenantza fiskalen onarpena izan zen. Duela zenbait urtetik hona, eta KPlaren parametro baxuen aurrean (baita negatiboak ere), irizpide gisa ezarri zen udal-zergak % 1 inguru igotzea, KPlak ehuneko handiak erregistratzen zituenean zergak gehiegi ez igotzeko. Horregatik, udal talde guztiek onartu dute % 1eko igoera orokor hori, nahiz eta 2021eko inflazioa % 6,5koa izan eta 2022rako aurreikuspena % 8,5koa izan.

Azpimarratu nahi dugu ere, Debarren Aholak, behin eta berriz hirigintzako batzordea berraktibatzeke beharra eskatu duela, eta azkenean egutegi bat finkatu da eta hurrengo hilabeteetan hilero 2 bilera egitea ezarri da. Bertan, 2007an onartutako Hirigintzako Plan Orokorra eguneratzeko prozesua hasiko da, baita garrantzitsutzat jotzen diren beste gai batzuk ere. Prozesu hori hirigintzako batzorde mistoak gidatuko du, eta bertan talde politikoek, udal-teknikariek eta hainbat arlotako adituek parte hartuko dute; eta jakina, herritarren iritzia jasoko da ere. Nahi dugun herri motan adostasuna lortzea izango da helburua.

Horrelako proiektuak luzeak direnez, Debarren Aholak etxebizitzaren inguruko eztabaidarekin hasi nahi du prozesua, baliabide gutxien dituzten kolektiboek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten.

¡POR EL DERECHO A UNA VIVIENDA!

En el último pleno celebrado en el mes de setiembre uno de los puntos significativos fue la aprobación por parte de todos los grupos políticos de las ordenanzas fiscales. Desde hace varios años, y ante unos parámetros bajos, incluso negativos, del IPC, se estableció como criterio incrementar los impuestos municipales en torno al 1%, con el objetivo de no tener que elevar los impuestos de forma excesiva cuando el IPC registrase porcentajes elevados. Por ello se ha aprobado por todos los grupos municipales dicho incremento general del 1%, a pesar de que la inflación de 2021 se situó en el 6,5% y la estimación para el 2022 es del 8,5%.

En lo que se refiere a otro tema importante, después de que DA haya insistido en la necesidad de reactivar la comisión de urbanismo, se ha establecido un calendario de 2 reuniones mensuales a lo largo de los próximos meses. En ella se va a iniciar el proceso de actualización del Plan General de urbanismo que data de 2007, así como otros temas que se consideren importantes.

En este proceso, que se liderará a través de la comisión mixta de urbanismo, donde participarán los diferentes grupos políticos, técnicos municipales, expertos de diferentes áreas y por supuesto se contará con la opinión de la ciudadanía, el objetivo será buscar un consenso en el tipo de pueblo que queremos.

Este tipo de proyectos son largos en el tiempo, por lo que desde Debarren Aholak insistirá en iniciar el proceso con un debate sobre la vivienda, tendente a conseguir que los colectivos con menos recursos tengan acceso a una vivienda habitual.



DEBAK HORRELA JARRAITZEA NAHI DUZU?

Galdera hori egiten dizugu eta EAJ/PNVn oso argi daukagu erantzuna.

Ez dugu merezi Udala Deban egiten ari den kudeaketa. Behin eta berriz ikusten dugu eraginkortasun ezak eta inprobisazioak udal agendaren egunerokotasuna betetzen dutela, ildo estrategiko garrantzitsuak alde batera utziz eta debarren bizi-kalitatea eraldatu eta hobetu nahi duten proiektuak alde batera utziz.

Egunez egun zerbitzuak galtzen ditugula ikusten dugu eta ez dugu erakargarria egiten, ez soilik negozio txikiak sortzea, ditugunak mantentzea baizik.

Etxebizitzaren arazoa izugarria da, ez dugu alokairu sozialerako aukerarik, Deban bizi proiektua garatu nahi duenak horretarako aukera izan dezan. Hori guztia aukera argi eta bideragarri batekin: Osioko eremu degradatuaren hirigintza garapena bultzatzea.

Premiazkoa da honi buelta ematea, horretarako gobernu bat behar dugu, debarrek beren bizi proiektua garatu ahal izango duten tokia Deba bihurtuko duten politikak ezartzeko asmoa eta gaitasuna duten pertsonak gidatua.

Gehiago merezi dugu, eta hori errealitate izan dadin, **Debako EAJ/PNV taldeak funtsezko zeregina izango du**, eraldaketa hori bultzatzeko gai garelako.

Alternatiba argia da eta hemen gaude errealitate bihurtzeko.

¿QUIERES QUE DEBA SIGA ASÍ?

Es la pregunta que te lanzamos y en EAJ/PNV tenemos muy clara la respuesta.

No merecemos la gestión que el Ayuntamiento está realizando en Deba. Vemos una y otra vez, que la ineficiencia y la improvisación llenan el día a día de la agenda municipal, dejando de lado líneas estratégicas importantes y abandonando proyectos que pretendían transformar y mejorar la calidad de vida de l@s Debarras.

Vemos cómo día a día perdemos servicios y no hacemos atractivo, no ya la creación sino el mantenimiento del pequeño negocio.

El problema de la vivienda es enorme, no disponemos de ninguna opción de alquiler social, que permita a quien lo desee desarrollar su proyecto de vida en Deba. Todo ello con una opción clara y viable como es el desarrollo urbanístico de la degradada zona de Osio.

Es apremiante darle la vuelta esto, para eso necesitamos contar con un gobierno liderado por personas con la intención y capacidad de implementar políticas que hagan de Deba el lugar donde l@sdebarras puedan desarrollar su proyecto de vida.

Nos merecemos más y para que esto sea una realidad, **el grupo EAJ/PNV de Deba va a tener un papel esencial**, porque somos capaces de traccionar esa transformación.

La alternativa es clara y estamos aquí para hacerla realidad.



UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

GILEN GARCIA BOYRA

ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

ARITZ LARRAÑAGA UNANUE

ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIK)

aritzlarranaga@deba.eus

ANTXON ETXEBERRIA LARREA

HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA

EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA
EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA,
MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereearrizabalaga@deba.eus

ANTXOKA ELORZA ALTUNA

OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

Portu kalea, 1

+34 943 192 840

info@deba.eus



DEBAKO UDALA

“Gizartea aldatzen doan bezala guk ere aldaketak eman behar ditugula ikusi izan dugu dantza taldeetan”

Iera Larrañaga Egiguren (Deba, 1989) Gure Kai E.D.T. dantza taldeko kidea pozik dago 'Martin Zalakain' ikuskizun handian parte hartu izanagatik, eta hori herrian erakusteko aukeragatik. Euskal dantzen, taldearen, emakumeen presentzia eta beste hainbat kontuen inguruan jardun dugu berarekin.



Orain dela egun batzuk Martin Zalakain ikuskizuna egin duzue Deban.

“Martin Zalakain” bezalako ikuskizun baten parte hartzea ohore bat dela esan dezaket. Honen sorreran lan handia egin duen lan-talde handi bat dago Juan Antonio Urbeltzetik hasita. Argia Dantza Taldea Euskal Herrian eta euskal dantzetan erreferente handia da eta dantza taldeei asko eskaintzen diena dela uste dut. Herriko, bailarako eta Euskal Herriko dantza talde ezberdinetako dantzariekin Euskal Herriko oholtzetan dantzatzea oso aberatsa eta ederra dela iruditzen zait. Jende ezberdina eta jatorra ezagutu dut.

Eta zure herrikideen aurrean aurkeztea?

Debara horrelako ikuskizun bat ekartzea niretzat ohore bat izan da. Euskal dantzen eta euskal kulturaren inguruan Deba lan handia egiten duela iruditzen zait, nahiz eta horrelako ikuskizun gutxi ekarri diren azken urteetan. Orain dela 33 bat urte, ni jaio nintzen urtean, Argia dantza taldearen 'Zortziko' ikuskizuna eskaini zen kiroldegian eta orain 'Martin Zalakain' ikuskizuna eskaintzea ederra izan da. Debako herrikideei Gure Kai E.D.T.-ko dantzariak beste ikuskizunetan parte hartzen bagabiltzala erakusteko erakusleho bat izan da. Ikusleen balorazioa oso ona izan da, eta ea hemendik aurrera horrelako ikuskizun gehiago gure herrira ekartzea posible dugun.

Emakumearen presentzia ohituraz gizonen dantzak izan direneta handitzen ari da.

Gizartea aldatzen doan bezala guk ere aldaketak eman behar ditugula ikusi izan dugu dantza taldeetan, normaltasunez gainera. Azken urteetan lanketa handia egin da, eta hemen ezin aipatu gabe utzi Oier Araolaza Arrieta, 'Generoa-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan' liburuaren egilea.

2013. urtea garrantzitsua izan zen Gure Kai E.D.T.ko dantzariontzat. San Roke dantza gizonetako egitetik, dantzariok egitera pasa baikin, hau da, ordutik aurrera emakumeetako eta gizonetako osatzen dugu ezpata dantza. Poliki-poliki eta naturaltasun osoz, soka dantzan ere aldaketak ematen joan gara eta dantzarien soka dantza dantzatzen dugu.

Badago erreleboa euskal dantza taldeetan?

Euskal dantza taldeetan gero eta dantzari gutxiago daudela esango nuke. Inguruko herrietako dantza taldeetako partaideekin hitz egin izan dugu eta denok bat gatzat gait honetan. Gizartea eraldatzen doan heinean, pertsonok erabaki indibidualak hartzen ditugu eta talde konpromisoek behera egin dute.

Eta Gure Kai E.D.T. osasuntsu dago?

Gure Kai E.D.T.n aktiboki 10-15 pertsona gaudela esan dezakegu.

Gure arteko harreman egokiari esker gure dantza taldea aurrera doala esan genezake, beti ere bailarako dantza talde ezberdinekin elkarlanean dihardugulako, Eibarko Kezka Taldearekin eta Elgoibarko Haritz E.D.T.rekin.

Besterik aipatu nahi duzu?

Gure dantza taldeko ateak edozeinentzat irekiak daudela esan beharra daukat, prest gaudela gogotsu datozen dantzariak eskuzabalik hartzeko. Hortaz gain, geure hizkuntza, euskara, eta euskal kultura denon artean zaindu behar dugula uste dut, generazior generazioko transmisioaren garrantzia azpimarratu nahi dut, hauek galdu ez daitezten. Ondoren eskuak burura eramatea alferrik baita!